

Irakurri hurrengo albisteak eta berriaren atalak bere lekuan jarri: **izenburua**, **sarreratxoa** eta **gorputza**

KORONABIRUSA

18 urtetik gorakoak ekainean hasiko dira txertatzen Iparraldean

Urkulluk udarako 50 urtetik gorakoak txertatzea espero du, eta Txibitek biztanleen %40 immunizatzea aurreikusi du ordurako. Osakidetza «txertaketa masiboa» egingo du astebururako

2021eko maiatzak 1



Txertaketa prozesua arintzeko ahaleginak egiten dabilza agintariak. Horren erakusgarri da Emmanuel Macron Frantziako presidentek egindako iragarpena: ekainaren 15etik aitzina, 18 urtez gorako herritar guztiak hartzen ahalko dute txertoa. Hala, Ipar Euskal Herrian, egun horretatik aitzina, koronabirusaren kontrako txertoa jartzen ahalko dute helduek. Maiatzaren 15etik aitzina, 50 urtez gorako herritar guztiak zabalduko zaie txertaketa kanpaina Ipar Euskal Herrian. Zaugarri diren 18 urtetik gorako herritar guztiak, berriz, asteburu honetatik goiti txertatuko dituzte.



Euskal ikertzaile batek historiako lehen ogi-hondarrak aurkitu ditu

Amaia Arranz ikertzailearen taldeak duela 14 400 urteko ogi baten hondarrak aurkitu ditu, Jordaniako aztarnategi batean.

Duela 14 400 urte, Jordaniako ipar-ekialdean bizi ziren ehiztari-biltzaileek historiako lehen ogiak egin zituzten, nekazaritza asmatu baino 4000 urte lehenago. Hala frogatu du Amaia Arranz ikertzaile taldearen aurkikuntzak.

Ikerketa-lana AEBko aldizkari zientifiko ezagun batek kaleratu du. Arranzek Kopenhageko Unibertsitatean egiten du lan, eta Londreseko eta Cambridgeko unibertsitateetako beste ikertzaile batzuekin batera egin du aurkikuntza.

Jordaniako Shubayqa 1 aztarnategian 24 janari-hondar aurkitu eta aztertu ditu Arranzek. Ateratako ondorioen arabera, gure arbasoek garagarta, oloa eta espelta erabiltzen zituzten. Aurkitutako hondarrek antz handia dute Europar edo Turkian aurkitu dituzten Neolitoko ogiekin.

Arranzek hitzetan, «halako hondarrei antzematea ez da erraza, ez baitute forma zehatzik». Izan ere, ikertzaileek aitortu du hasieran ez zela aurkikuntzaz konturatu.

www.eitb.com (moldatua)



Irakurri arretaz albistea.

Berrituta dator *Bago!az*

Bi denboraldi arrakastatsuren ostean, EITB 1ek *Bago!az* saioaren hirugarren denboraldia estreinatuko du gaur. Asteazkenetan 22:35ean emango dute, eta ostiraletan, 21:00etan.

Jabi Elortegik jarraituko du zuzendari lanetan, eta lehiaren dinamikan berrikuntzak egongo direla iragarri du. Saioko aurkezlea Zuriñe Hidalgo izango da, aurreko bi urteetan bezala. 16-17 urteko talentuak ikusteak sentsazio onak ematen dizkio: «Agerian gelditzen da Euskal Herrian artista ugari dagoela».

Talent show deritzonaren irabazleak, gainera, *Go!azen* telesailaren parte hartzeko aukera izango du.

Berria egunkaria. 2019/02/27



Lotu bi zutabeak:

Nork?

Albistea argitaratu zen egunean, gaueko 22:35ean.

Zer?

Euskal Irrati Telebistaren 1. katean.

Noiz?

Bago!az telesailaren hirugarren denboraldia estreinatu du.

Non?

Euskal Irrati Telebistak.